


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2012ko APIRILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 jaitsi ziren 2012ko apirilean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko apirila, 2011koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %1,0 gehitu ziren.

2012ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,0 igo, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza apirilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2012ko apirilean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,3 jaitsi dira.

Apirilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beheranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,2ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,5ekoa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,8 igo ziren; Obra zibilekoak %1,6.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Energia elektrikoa eta gasa (%11,8), Petrolio-fintzea (%8,1), eta Industria kimikoa (%4,4) nabarmentzen dira. Berriz, urteko prezioetan (2012ko apirila 2011koaren aldean) jaitsierak edo igoera txikiagoak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Metalurgia (%-5,2), Mineral ez-metalezkoen beste produktuen fabrikazioa (%-1,3) eta Altzarigintza eta beste manufaktura-industriak (%0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO APIRILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	121,5	-0,2	1,0	0,8
ERAIKINAK	120,1	-0,2	0,9	0,6
OBRA ZIBILA	126,7	-0,4	1,5	1,8
LEHENGAIEN KOSTUA	120,9	-0,3	1,0	0,8
ERAIKINAK	119,2	-0,2	0,8	0,4
OBRA ZIBILA	127,6	-0,5	1,6	2,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.